

## **GERNIKA-LUMOKO HEZKUNTZA ZENTROEK GAUZATUTAKO ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO JARDUERA KULTURALETARAKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA**

### **1.- OINARRIZKO ARAUAK**

- a).- Honako diru laguntza deialdia Tokiko Gobernu Batzarrak **2016ko** .....n hartutako ebatziaren arabera egiten da, ebatziari erantsitako araudiari eta Gernika-Lumoko Udalbatzak 2012ko azaroaren 28an izandako ohiko bilkuran onartu zuen “Diru laguntzen Ordenantza”-ri jarraiki. Araudi honetan finkatzen ez denerako, aipatu Ordenantzara joko da (onuradunen betebeharrak, emateko prozeduraren berezitasun administratiboak, diru laguntzak itzultzea, arau-hausteak eta zigorrak).
- b).- Tokiko Gobernu Batzarraren aipatu ebatzia Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da eta udalerriko irakaskuntza zentro guztiei, publikoei eta kontzertatuei, jakinaraziko zaie modu zehatzean.
- c).- Deialdiaren berri jaso eta hogeit eguneko epean aurkeztu beharko dute onuradunek bidezko eskabidea, zehaztuko diren agiriekin batera.
- d).- Hala denean, eskabideak berregiteko aukera izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluaaren arabera.
- e).- Diru laguntza hauek, udal aurrekontuko 5-32000-43000 partidaren kontura joango dira eta 2016 urterako 32.000 euro burutuko dira guztira.
- f).- Diru laguntza emateko instrukzioa Euskara Zerbitzuaren ardura izango da; honek bidezko txostena egin ondoren, Hezkuntza zinegotziaren proposamena igorriko zaio Tokiko Gobernu Batzarrari, ebazpena har dezan.
- g).- Ebazpena hartu eta handik eta zazpi egun barru, Tokiko Gobernu Batzarraren akta iragarriko da udaletxeko iragarki taulan.
- h).- Ebazpena hartu eta 10 eguneko epean, gehien jota, eskatzaileari jakinarazpen pertsonala bidaliko zaio legez finkaturiko moduan, berak eskaera orrian aipatutako helbidera. Jakinarazpen horretan, ebazpenaren aurkako errekurtsoen berri emango zaio.

## **2.- ONURADUNAK**

Udalerriko Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen duten irakaskuntza zentro guztiek dute onuradun izateko eskubidea.

## **3.- AGIRIAK AURKEZTEA ETA EPEA**

Eskabide orria (1. eranskina) aurkeztu beharko da oinarrizko arauetan aipatutako epean (deialdiaren berri jaso eta hilabeteko epemuga) eta, horrekin batera, hauek ere bai:

- 2. eranskina beteta (diru laguntzak lortzeko bateraezintasunik ez dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena).
- 3. Eranskina beteta (Zentroak ikasturtean zehar egin dituen edo egitekoak dituen eskolaz kanpoko kultur ekintzen zehaztasunak: noiz, inplikaturiko agenteak, aurrekontua –sarrerak eta gastuak- ).

## **4.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Helburua: Gernika-Lumoko Udal Eskola Kontseiluan partaide diren irakaskuntza zentroetako eskolaz-kanpoko kultur jarduerak laguntzea, Udal Eskola Kontseilutik koordinatzen diren ekintza komunak barru (Idazlan koadernoak, Dantzari Eguna, Antzerki jardunaldiak).

Aurrekoari lotuta eta aintzat harturik zentro guztiek dihardutela D ereduari eutsiz, diruz lagunduko diren jarduerak dinamika horrekin bat egin beharko dute eta euskaraz garatzekoak izango dira, ahaztu barik aipatu ekintza komunak ere horrekin bat datozela.

## **5.- DIRU LAGUNTZAK ESLEITZEKO BAREMOA**

Diru laguntzak esleitzeko baremoa Udal Eskola Kontseiluak ebazten du urtero eta, 2015-2016 ikasturteko deialdi honi dagokionean, 2015eko irailaren 15ean finkaturiko baremoari eutsiko zaio:

- a).- Zentro guztiei gutxieneko 400 euroko diru laguntza ematea.
- b).- Gainerakoa, zentro bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera banatzea. Ikasle kopuruak egiaztatzeko, Bizkaiko Hezkuntza ordezkarietatik jasoko dira datu zehatzak.

## 6.- ZURIKETA

Onuradunek, zuritu egin beharko dute jasotako diru laguntzaren erabilera ikasturtea bukatu eta hilabeteko epean, burututako jardueren memoria eta bidezko ordain-agiriak aurkeztuz.

Jarduerak, Udalak emandako diru laguntzez gain, norbere fondoekin edo beste diru-laguntza edo fondoren batzuekin finantzatzen badira, zenbatekoa, jatorria eta Udalak diruz lagundutako jarduerari nola aplikatu zaizkien fondo horiek aitortu beharko da gastuen zuriketan.

Udalak emandako diru laguntza gehi beste jatorri bateko diru laguntzak gehiago balira gastu guztiak baino, gehiagoko kopuru hori itzuli egin beharko zaio Udalari.

I. Eranskina

**GERNIKA-LUMOKO HEZKUNTZA ZENTROEK GAUZATUTAKO ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO JARDUERA KULTURALETARAKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA**

**ESKAERA ORRIA (2015-2016)**

IRAKASKUNTZA ZENTROA:.....  
IFK:.....  
Helbidea:.....  
E-maila: .....  
Telefono zk:.....

Ordezkaria (izen-abizenak):.....

2015-2015 ikasturteko eskolaz kanpoko kultur **ekintza ez komunak**:

- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 

2015-2016 ikasturteko eskolaz kanpoko kultur **ekintza komunak** (gurutze bat jarri dagokienei):

- Idazlan koadernoak: ....
- Antzerki jardunaldiak:...
- Dantzari Eguna: .....

Data: .....

Iz:

## II. Eranskina

**GERNIKA-LUMOKO HEZKUNTZA ZENTROEK GAUZATUTAKO ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO JARDUERA KULTURALETARAKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA**

**BATERAEZINTASUNIK EZ DAGOELA ADIERAZTEN DUEN ZINPEKO AITORPENA (2013-2014)**

Aitortzailearen izen-abizenak: .....

Zein zentroren izenean ari den: .....

### **AITORTZEN DUT**

Ordezkatzen dudan zentroan 2015-2016 ikasturtean burutu diren eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntza eskaera aurkeztu duela, Gernika-Lumoko Udalak kaleratutako deialdiari eutsiz, eta aipatu diru laguntzak jasotzeko bateraezintasunik ez dela gertatzen.

Aitortzailea,



gernika-lumoko  
euskara zerbitzua




### III. Eranskina

## JARDUERA ZERRENDA ETA ZEHAZTASUNAK

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA	NOIZ	INPLIKATURIKO AGENTEAK	DIRU SARRERAK	GASTUAK












			<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>GASTUAK GUZTIRA</b>





gernika-lumoko  
euskara zerbitzua

